

WILLIAM LEVI D'ABARTIAGUE ETA LE PAYS BASQUE-ESKUAL HERRIA

Xipri Arbelbide

Baionako liburutegian aurkituko dituzue bi liburu handi: *Le Pays Basque/ Eskual Herria* kasetaren kolekzio bat. 1898-an urriko 1an sortu zuen astekari hori William Lewy d'Abartiague batek. 1914a arte iraun zuen. Azken hilabeteetan bat egin zuen *Argitzailea* deitu beste astekari batekin. Hastean bazuen laurden bat euskaraz eta emeki-emeki euskararen tokia murriztuz joan zen. *Argitzailea* aldiz kasik dena euskaraz zen.

Bat ala bestea gorriak ziren. Horrek ez du erran nahi ezkerrekoak zirenik! 3. errepublikako gorri gehienak erradikalak ziren eta ez sozializtak. Eskuinarenekin bat egin izan dute sozializten beldurrez.

Baionako kolekzioan zenbaki gehienak badira 1898ko urritik eta 1904eko ondarra arte, gero banazka zenbait, ez bada 1910ko urtearentzat. Hau kasik osoan dago. Departamenduko eta Pabeko hiriko artxibotan zenbaki zenbait baizik ez da. Parisko liburutegi nazionalen falta dira 1902tik 1907rateko urteak, 1910a, 1912a eta han hemenka beste zenbaki batzu.

Astekariak lau orrialde zituen eta handia zen: 50 x 34 zm.

WILLIAM LEWY D'ABARTIAGUE

Lewy d'Abartiague batek sortu zuen kazeta. Lanak izan ditugu gizon hau nor zen jakiteko.

Haren izen ofiziala William Theodor Lewy da. Lewy horrek judua dela iduri luke eta berak ere aitortzen du nonbait, 64-tik bat hala dela. Parisen sortu zen 16. auzoladean 1866an otsaileko 14an.

Behin baino gehiagotan leporatuko dio *Eskualduna* astekariak judu huguenota zela, Dreyfus aferarekin antisemitismoa gorenean baitzen. Horren gatik ote luke emeki-emeki bere izenari d'Abartiague gehiturik, Lewy osoki baztertu azkenean. Pierre Henri semeak ere izena aldatu zuen, Lewy kenduz d'Abartiague baizik ez uzteko... 55 urtetan, aita hil eta 11 urteren buruan, Ortzazeko sortze agerietan ikusi dugun bezala. Zer gatik ote?

Izen aldatze horretaz trufatu zaizkio *Euskalduna* astekarian. Aitortuko duzue ez duela ebanjelioko amodioaren antzarik literatura horrek, baina *Euskaldunak* ez zeukan horretaz axola handirik bere etsaiekin. Bestalde, judu bezala atakutzen dutelarik, oso oker dabilta bere judutasuna ez baitu behin ere aipatu hemen. Protestantismoa aldiz bai. Hona besteak beste nola izendatzen duten: *Judu eta higanaut solas horiek. - Zer loria! Higanauta aintzindari eta manatzaile giristinoen artean.*

Edo hau oraino:

Belar gaixtoak ez du hazi onik behin ere ekartzen. Badakigu gure gostuz Lewy zer belar mota den, ez girtixinoa bainan judua eta protestanta. Sagar ustel batek bestiak usteltzen ditu, beira giten haren kotsutik (...) Orhoit beti apezzen eta Elizaren kontra den gizona ez dela giristinoa bainan framazona, judu eta protestanta. Oroit beti eta ez behin ere ahanz.

Eraso horiek hunki zuketen zeren eta erantzuna eman izan du, bere kasetan:

Ezagutzen nuten guziek, eta gehienik Ortzaitarrek badakite arras ongi ez nizela judua, nahiz zuri berria hedatu dauzunak nahi izan duen sinhets erazi ez dudala segitzen Jesu-Kristoren dotrina edo erakuspena.

Baina hona *Euskaldunak* agertu artikulu bat izen aldatzeaz, frango gaixtoa, antisemitsimoz kutsatua:


Renier la loi, ses prophètes, le temple, la synagogue; jeter aux orties toute la défroque archaïque et surannée d'un passé jugé compromettant; en un mot, dépouiller le vieil homme, voilà, ce que vient de faire, avec une prestigieuse désinvolture, le grand, l'illustre chef du parti opportuniste de notre vallée.

Déjà depuis plusieurs hivers, l'opération du dépouillement était commencée par la chrysalide. Nous allons raconter les phases de cette épatante transformation en naturaliste véridique. L'insecte était sous sa première forme, Lévi; puis, cette designation de tribu hébraïque est devenue quelque peu grecque, par le changement du i en y, Levy. Le travail latent se poursuivant toujours, le v a augmenté d'importance, en se doublant en w. Ce vocable, ingénieusement formé, avait une assonance anglaise qui pouvait contenter son heureux possesseur, mais la nature n'arrête ses évolutions qu'après achèvement parfait de l'oeuvre entreprise.

*Nous allons voir le papillon complet, par la simple adjonction du mot – Abartiague – lié par le **de**, particule nobiliaire, au Levi primitif, d'où «Loewy d'Abartiague».*

Armes parlantes de la maison: un rameau d'or – abar – sur champ d'azur, l'écu surmonté du casque, panache des chevaliers croisés; devise: Dieu et mon droit.

Jamais on ne vit, même à la descente de la Courtille, un déguisement plus triomphalement héraldique.



Le Loewy, nonobstant, conservait encore une forme légèrement hébraïque. A l'inverse d'Alcibiade, qui opéra du ciseau sur la partie centrale de son terre-neuve, notre homme, plus résolu, se décida à trancher sa tête.

A son titre d'ingénieur civil il pourra ajouter désormais celui plus original de guillotiné volontaire. Une récente brochure est en effet signée L. d'Abartigue. Chenille devenue papillon, il devait à sa nature aérienne de conserver son L – mais son I seule. L. d'Abartigue est devenu la signature définitive, après adjonctions et suppressions, de l'auteur populaire des Cuisines Suisses.

Cette métempsychose n'a pas surpris outre mesure les observateurs; ils ignoraient seulement le moment précis de l'évolution finale. Avec tact et patience, M. le baron d'Abartigue a su lui-même conduire la délicate opération et aboutir, juste au moment psychologique. Nos félicitations à M. le comte, mais que M. le marquis ne s'arrête pas en si beau chemin. Le titre d'Uzès brille sur le parchemin de l'armorial français; celui d'Ossès sera son noble pendant. N'est-ce pas Monsieur le prince?

* * *

Pentsatzen dugu Diharasarri Ortzaizeko erretorak idatzia duela artikulua hori Eskualdunaren buru zen Hiriart Urruty-ren babespean. Markesa aipatzen baitu, bi gutunetan ikusi dugu hain zuzen markesa deitzen zutela. Baina bestek, ez berak bere burua.

ETORKIA

Aita, Emile Lewy, arrantiera zen. Ezkontza kontratu batetan ikusi dugu «d'origine Danoise». Familiako paperretan diote Holandan, Banque des Pays Bas bankuko familia batetarik ateratzen zela. Zer heinetaradino zuen odola dinamarkarra, edo herbeheretarra, ez dezakegu erran. Bere semeak judugoarentzat bezala 64/1, ala gehiago, ala gutiago?

Diruketa handiak bazituen aitak, bainan bere ontasuna galdu zuen 1883an, Boltsan jokatu: garai haietako 110.000 libera! Ez da oraikoa ikusten duzuen bezala. Etxeko mubleak ere saldu behar izan zituen. Familiatik ondoregotzat eskuratzen ahal zituzkeenak ez galtzeko, emazteak auzitegian eskatu zuen, eta ardietsi, senar-emazteak bat bestearen onaoko ezkonduak zirelarik, bakotxa bere ontsunen jabe izan zitezten:

«le mauvais état des affaires de M. Lewy et les poursuites exercées contre lui ayant mis en péril les successions qu'elle pouvait avoir à recueillir».

Zenbait urte berantago, amak, Willy semeari saldu baitzion Ortzaizen zeukan ontasun bat, Florentzeneko borda, Habiako patar kaskoan, Irisarriko mugan, ez ote zen aitaren zorren pagatzeko saldua izanen hori gabe? Ontasun horretan eraikiko du William-ek le *château d'Abarratiague* deituko duen etxe bat, baina ohikoa ez den etxe bat baizik ez dena.

Nor zen Emile Lewy-ren emaztea, William-en ama? Clémentine Thérèse Gavaron deitzen zen. Ingalaterran ezkonduak ziren, 1865an apirileko 29an. Familiako paper batzuetan irakurto dugu:

«Willy avait la reputation d'être un bâtard du duc de Winsdor futur Edouard VII d'Angleterre».

Erosi bezala saltzen dizuet. Gauza segurra, ez zela baxterta, ofizialki bederen: aitamak ezkondu ondoan bederatzí hilabeteak pasatuak ziren sortu zelarik, eta bere aitaren seme ekarria da. Emaztea ñapurkerietan ibilia ote zen delako printzearekin, ezkondu eta biharamunen? Ez dugu lekukorik aurkitu eta garai haietan ez zuten ADNa ezagutzen...

Ez dugu zuhaitz genealogiko osoa agertuko baina bakarrik erranen Bordenave-tiarretarik ateratzen zela ama hori, Jean-Baptiste Orpustanek idatzi paper batzutan ikusi dugunaz. Jacques Bordenave 1699an Salbateran sortua, Biarnoan, Ortzaizerat etorri zen eta Gracianne Elizaga ortzaiztarrarekin ezkondu 1733an. Tratulanta zen eta protestanta.

Jean-Baptiste, honen semea, Juana Maria Tastet, Donostiako armadore baten alabarekin ezkondu zen 1761an. Iduri luke hauenak direla, Orpustanek, asko xehetasunekin, publikatu hiru kantu: *Alegiako apezpikua*, *Haran eder Hortzaizeko* eta *Partiada Tristea Ortzaizetik*. Patri Urkizuk Euskal Erakustokian aurkitu kantu bilduma batetan agertzen dira eta Orpustanen ustez, kantu horiek Bordenavetiarrek bilduak dira.

1790an, Frantziako Iraultza garaian, Ortzaizeko lehen auzapeza izana da Jean-Baptiste hau, bi aldiz ohargarri baita: alde batetik arrotz baten semea zen eta bestetik protestanta. Orain ez genioke horri gehiegi kasu egin baina garai haietan bai. Bai eta berantago ere. Margarita, William-en izaba protestanta ezkondu zelarik Larrin katolikoarekin, kontratu berezi bat egin zuten, haurrak erlisione katolikoan altxatuak izanen zirela errateko:

«les enfants seront élevés dans la religion catholique, apostolique et Romaine qui est celle dominante en France et professée par le futur époux».

Erran behar dugu halere Charles Dabbadie, Antonioren anaia, Etxauzeko jauna, Baigorriko kontseilari nagusi izan zela, nahiz protestanta, gainerat katolikoa izana zelarik: arnegatua deitzen du *Eskualduna* astekariak.

Delako auzapeza, Pabe ondoko Lezkarrera eramán zuten preso, baizik eta Iraultzaren kontrakoa zela. Baina lekuko aski sinesgarriak aurkitu zituen eta libratua izan zen gehiagokorik gabe ... urte baten buruan. Hariztoyek ere kondatzen du historio hori *Les Paroisses du Pays Basque* liburuan.

Honen semea, Pierre Bordenave, Amélie Smith Finlayson ingelesarekin ezkondu zen eta hauen alaba Thérèse, Emile Loewyrekín. Gure Willy, hauen hiru haurretarik lehena dugu.

William ere protestanta zen eta lehen kominionearen karietara, bere «artzainak» eman zion Biblia eskuetan izan dugu. Ortzaizen finkatu zelarik, apez protestant bat etortzen zitzaion oporretara etxera eta Meza emaiten hor berean apez jauntziarik gabe. Sehiak ere Meza horretara joaiten ziren, oraino bizi den Dominika Hiribarren Bidegaray andereak erran digunaz. Beharrik Ortzaizeko apezak ez zekien horrelakorik! Artzain horrek zuen ehortzi Ortzaizeko eliza bazterrean, iparraldeko ate eskuinean, 1944an.


Emazte horrek dit erran William-ek zazpi mintzaira mintzo zituela «agur maria» bezala. Euskara ere bai, jendekin mintzatuz ikasia, oporretara etortzen zelarik: urtean lau hilabete halere. Biziki ona zela herritarrekin, eskulanetan aritzen zela, aitzur eta eskorgekin. Emazteak zela erre erran dit. Ez da harritzeko beraz aldi bat baino gehiago ezkondu bada, lehenik, 1894an Louise Naud Scheurichekin, rue de Rivoliko hotel Meurisse ospetsuko jabea, Tuilleries baratzeen bazterrean. Izatez ingelesa zela irakurtu dugu kazetan.

1912an Clémence Sculfortekin, aintzineko ezkontza baten ondotik senarretik berexia. Willy eta Clémencen arteko ezkontza, honen logelan egin zen, emaztea ohatua izanez. Zer gatik ez ziren emaztea sendatu arte zai egon? Zer gatik lehia hori? Ez dakigu. Ezkontza hau ere hautsia izan zen 1922an. Emazte hau «mixterioa aberatsa» zela erran digu Dominikak.

Mintzatuz ikasi bazuen euskara, beste eskolarik ere bazuen. Ingeniaria zen. Berak dioenez Ecole Centrale des Arts et Manufactures-tik ateraita. Oraiko Ecole Centrale. *Eskualdunak* dio ez zela haren hatzik ageri eskola horretan. Nihaur izan naiz ikusten eta ez dut deus aurkitu.

Beste nonbait erraiten baitu «palmes académiques» ukan zituela, dekorazio horren zerrendan ere ez dugu aurkitu. Jadanik aipatu *Eskualduna* astekariko artikuluan ere alusio ironiko bat bada markesa tituluaz. Handi nahia ote zen? Gauza bertsua ikusi genuen, garai beretan, itsasoz bestaldean, Goytinorekin, honek ere *officier d'académie* zela baitzioen, nihon ez delarik izendatze horren hatzik.

Baina ingineria zela ez da dudarik, Garai haietako Pariseko Tramwayetan kargu handia zukeen. Zadiz martxan ziren tramway-ak oraino, baina argindarra ere aipu du gerorako. Txostenak egin ditu zaldi zaharretaz zer egin erraiteko, tramway horiek errexkiago abiatzeko edo gelditzeko Ingalaterran asma-



tu sistema batetaz. Raillen garbitzeko han zeukaten tresna batetaz. Bidaiariaren kopuruak urte batetik bestera zeukan garapenaz: 1889 eta 1890 artean 106.000 bidaiari gehiago izan zuten. Karkulatua zuen zer mozkin emaiten zuen tramwayzain bakotzak kilometroka eta egunka! Levyren arabera baziren zenbait kanpo eman beharrak hala nola zaldiak zauritzen zituztenak.

Ortzaizen zelarik interesatu zen hemen egiteko xedeetan ziren treinei: Donapaleutik Donibane Garazirakoari; geltokiak hor dira oraino Buztintzeko bidekurutzean eta Galtxetaraburuko patarran. Zubi alfer bat Kinkilen Larribaretik berehala. Obrak gelditu ziren 14ko gerlaren gatik.

Donapaleutik eta Ortzaizeratekoari. Kanbotik eta Hazparneratekoari. Hauk ez dira behin ere hasiak izan. Biarnokoek izan zuten lehentasuna. Ordukotzat.

Iduritzen zaiku ez zuela luzatu Pariseko tramway konpainian, zeren eta gero, Gobernuak igorririk ibiliko baita eskuin eta ezker «misioz». Bizi guziaz horrela segitu ote lukeen gero, ez dugu zilatatu ahal izan.

Parisen norbait zen. Hala nola gomita izan zuen Sarah Bernard-en ohotan egin zen bazkari batetara, Grand Hôtel-en, Alphonse Daudet, François Coppée, Sully Prudhomme, Edmond Rostand eta orduko izen famatuenekin.

Levyren izena agertzen da «*Livre d'Or des Salons*» urtekarian Henri Poincaré-ren konpainian: *Ingénieur civil, Directeur du journal du Pays Basque, Officier d'Académie, 228 rue de Rivoli et château d'Abartiague Ossès, poste, telegraphe et train à Ossès*. Urtekari horretan ez da ikusten Etcheverry, Berdoly, Pradet Balade, Forsans eta Harriague deputatuen izenik, baina bai Abbadia bi anaienak, Hendaia eta Baigorrikoarenak.

Beste behin ikusten da Théâtre de la Renaissance antzokian Pierre Loti, Poincaré, Rotschild baroia, Waldeck Rocher, jeneral, kolonel eta baroien konpainian.

Eskualdunari igorri gutun luze batetan idazten du (1898.XI.07):

«*C'est ainsi que j'ai été chargé l'année dernière par le Ministre du Commerce et de l'Industrie, d'étudier les questions ouvrières en Suisse, et cette année par le Ministre de l'Intérieur, d'étudier les moyens employés pour combattre l'alcoolisme et les résultats obtenus dans différents pays de l'étranger, en particulier en Allemagne, en Russie, en Suède et Norvège*».

Errusian eta Londresen izan kongresuetako txostenetan agertzen da Abaritiague izena. Hiru lantxo utzi dizkigu Suisaz:

- *L'Assistance par le travail en Suisse*, Biarritz, 1896 (8 or.)
- *Cuisines et restaurants coopératifs*, Paris 1897, (20 or.) *Revue Philantropique* aldizkarian agertu artikulua. Beste liburuxkak ere artikulua zenbait ditezke.
- *Institutions post-scolaires*, quelques mots sur ce qu'elles sont en Suisse et ce qu'elles devraient être en France (1898).

Beste zenbait liburuxka ere idatzi ditu:

Eléments analytiques et pratiques de grammaire espagnole, Biarritz, 1906, (16 or.)

Bere kazetan irakurtu dugu:

«A la suite d'une découverte de mathématiques qui fut l'objet d'un long rapport et d'une longue discussion à l'Académie des sciences, il fut à l'âge de 19 ans proposé pour les palmes académiques qui lui furent décernées à un âge exceptionnel».

Gure itzulia egin dugu akademia hontan eta deus ez aurkitu. «Aurkikuntza» horren umea ditake ondoko liburua:

Essai sur la propriété des puissances des nombres. Recherches et remarques pour élever à la puissance et extraire la racine des nombres au moyen de tables et sans calcul. Biarritz, 1897, (20 or.) Gure matematika heina ez da aski handia liburu horrek zer balio duen erraiteko!

Bi lanik ezagunenak:

– *L'Atlantide et les Basques*, essai de bibliographie, Baiona 1937.

– *De l'origine des Basques*, Paris, 1896, (31 or.) gutienez bost edizio izan dituen.

Eta bat euskaraz: *Lehen eta orai. Errepublikaren ongiak*. Pentsatzen dut norbaiti egin arazi ziola itzulpena.

Izan ote da besterik? Bere kasetan idazten du:

«ceux du Pays Basque se rappellent les moyens ingénieux auxquels le jeune Lewy d'Abaratiague a eu recours et les sacrifices qu'il s'est imposés dans ces dernières années pour vulgariser dans nos vallées la connaissance de la langue française à l'aide de tout petits livres d'historiettes et de bons points à images qu'il a distribués à profusion dans nombre d'écoles. La commune d'Ossès a bénéficié plus d'une fois de la générosité de la famille Lewy d'Abartiague».

Liburuxka horiek ez ziren baitezpada berak idatziak, bainan lerro horiek erakusten dute hurrek frantsesa ikastea nahi zuela. Erriente formatzeko ere bilkurak egin izan ditu.

Ligue Française pour la défense des droits de l'homme elkartean, hementzen lehendakari zen 1903an.

1900go Parisen egin zen erakusketa unibertzalaren karietara bi inizatiba izan zituen:

1. Pireneotako kanbo-uren publizitatea egitea kongresu horren karietara. Arduradun izendatu zuten arlo horri interesatzen ziren senadore, deputatu eta medikuek.

2. Lehen «Congrès Internationnal d'Etudes Basques» biltzarra zor diogu, (Palais des Congrès, salle E): lau egun iraun zuen kongresu hori antolatu zuen. Bainan erran behar da zuzendaritzan, euskaldun bakar bat baizik ez zela eta oraino, ez ezaguna, Aguer Barhendy matematika erakaslea. Besteak dira, ondoko urtean, oso minbera agertuko direnak, *Association Basque* elkarteak sortuko dutelakotz Hendaian, Euskaldunen artean, haiek gabe. Horietan dira Vinson kongresu horretako lehendakaria, Schuchart, O Shea Biarritz-Associationgo lehendakaria eta Charenceyko kondea, Filologia sozietateko lehendakaria. Parte hartu zuten ere Wendworth Webster eta Linschmannek; euskal diasporatik Sescosse eta Iriartek, bai eta Aranzadi eta... Arana Goirik. Badakigu honek estimutan zeukala Abartiague.

Fonogramak grabatu zituen Azoulay medikuak, kongresuan ziren lapurtar, gipuzkoar eta xiberotar mintza araziz. Erabaki zuten ere beste kongresu baten egitea 1902 edo 1903an Donostian.

Kongresu hori Abartiagek antolatua eta ez zitekeen *Eskualdunaren* gus-tukoa izan. Bi artikulu kritiko badira ondotik, (bat Droeyffus d'Agortiaque izenpetua), Vinson, de Charencey eta Abartiaguen mintzaldietaz.

Euskal mundutik aparte, Credit Agricole bankuko administrari kon-tseiluko 9 kideen lehendakari zen.

LE PAYS BASQUE-ESKUAL HERRIA

Gehienik famatu egin duena da beraz astekaria: *Le Pays Basque- Eskual Herria. Journal Républicain hebdomadaire*. Bera Parisen izanez urteko par-terik handienean kaseta eskutan zeukan norbait bazuen lekuaren gainean. Ez dakigu nor. Idazleetan agertzen da Sauveur Harruguet Donibane Garaziko uxerra eta framazona, bainan nola zenbait urteren buruan eztabada bat gorria izan baitute, uste dut laguntzale baizik ez zela delako Harruguet

Egoitza Baionan zen Victor Hugo karrrikako 12an. Biarritzen ere izan da Duler karrrikako 17an. Salgai zen Baionako 2 liburutegitan eta papeteria bate-tan, Biarritzen, Kanbon, Hazparnen, Donapaleun, Maulen eta Donibane Gara-ziko bi tokitan

Ordezkaritzak bazituen Parisen, Buenos Airesetan, Montevideon, Boli-bian, Perun. Zer pisu zeukaten, hori besterik da. Euskaldun bakar bat ezagutzea nonbait aski baita eta haren helbidea emaita ordezkari-tza badela erraiteko! Ez dut uste arrakasta handirik izan duen kazetak, nahiz lehen zenbakietarik bate-tan emaiten duen *2.500 exemplaires contrôlés*.

1910an, Baionako diozesiak ikerketa bat egin arazi zien herri bakotxeko erretorei jakiteko beren herrian zer irakurtzen zen; hor agertzen da 7 abonba-

tu zirela Uztaritzen, 5 Ezpeletan, 3 Maulen, eta bina Donapaleu, Baigorri, Garazi eta Atarratze. Tinia pasatua zukeen. Erran behar da denbora berean bazela beste kazeta bat gorria Baionan, frantsesez, *Le Réveil*, eta artikulu osoak badirela berdinak bi kazetetan, Trebucq izenpetuak. *Le Hendayais*, hiri hone-tako kazeta gorritik ere hartzen ditu artikulu osoak, Cyrille izenpetuak, *La semaine* titulupean, asteko berriak frantsesez. Gero, bat egin du *Argitzaleak*-ekin, hau ere gorria, gehiena euskaraz.

Beste hiru kaseta gorri izanki eta zer eremu gelditzen zitzaioan Abarra-tiagari? Ez ote zuen Goytinok Los Angelesetan bezala, bere buruari inportan-tzia emateko berak finantzatzen kaseta hori. Gorago ikusi dugu nola urteka-rietan bere izena sartzen zuelarik, kaseta horren zuzendari bezala agertzen dela. Nork zekien Parisen zer pizu zeukan *Euskal Herriak*? Kazetarien kongresuetarat ere gomitak bazituen horrela.

Artikuluetan aste oroz bada euskaraz *Menditarra*-ren artikulua, asteko berriekin edo aburu artikulu batekin. Honek jadanik idazten zuen *Le Réveil Basque* Berdolyren kazetan. Aitortuko ditzuet honen artikuluak gustatu zaiz-kidala ala euskararen aldetik, ala mamiaren aldetik. Gizon honek kultura ba-zeukan eta idekia zen. Hala nola Aldudeko erretoraren prediku baten laudo-rioak egin dituen behin, ez baitzen irakurle guzuen gustukoa izan! Kontrarioa nekez asma dezaket *Eskualdunaren* aldetik! Hau, gorrien kazetak baino alder-dikariagoa zen.

Piarres batek idazten zuen laborantzaz, L.B. bat ere agertzen da frangotan, bai eta Elie Pécaud protestanta: eskoletako inspektorea, nesken eskola norma-la sortu zuen St Germain en Laye hirian. Ochavo batek emaiten ditu Hegoalde eta Espainiako berriak.

Gehienetan izengoiti batek izenpetzen ditu artikuluak: G. de la Nive, Gezurrik ez, Manex Egiamaita, Halabiz, Jelos, Argi, Argizale, Hordago, Peio Biphil.

Herrietako berriak badira aldi oroz eta frangotan gorri eta xurien borroka politikoa hunkitzen dute. Edo eliza eta eskola katolikoek kontrako legeak. Frantsesez «Nouvelles du Pays Basque» titulupean, eta euskaraz «Eskual-he-rriko berriak» titulupean. Frantsesez badira euskal herri barneko berriak ere. Errientak zituzkeen berrikerari eta hauek euskara ez zekiten ber, beren lerroak frantsesez idazten zituzketen.

Ortzaize da deneri nagusi. Ortzaizeko Ganich xuriak ere askotan fran-tsesez idatzi du *Eskualdunean*. Arazoa ez zen bakarrik euskara jakitea edo ez beraz. Oro har *Eskualduna* astekarian baino herrietako berri gutiago da kaze-ta honetan.

Bertsu eta kantuak ere agertzen dira, bai eta hostokadak (ateka gaitzeko oihartzuna, amodioa eta gerla, Ramuntxo, Don Kixote (Duvoisinin itzulpena),

Frantziako historia (ez dakit besterik ba ote den euskaraz!), eta abar... Politika artikulua dira interesanteak guretzat, bereziki bozka sasoinetan.

Ortzaizeko berrietan bere moldean kondatzen du eskola laikoaren (publikoa) benedizioa:

Ez da eskola hori idokia izan gobernamentuko aintzindarietz, eta horietarik agertu baino lehen nahi izan dute herriko buruzagiek interdiarazi etxe hortan zitakeen edo sartzen ahal zen debruaren herrestorik den gutiena.

Hortakotz, egun hortako galdegina izan da herriko auzapezaz, Kontseilu guzia, segurtatu ondoan debruen herresto horien kasatzerat jinen zaiola herriko artzaina, zoina baita denbora berean Erromako apezpiku eta Frantziako deputatu huts egina.

(...) Baldin bada Eskual herrian eskola etxe berri zenbait benedikarazi nahi duenik nihor, aski du gure Monsignori adrezatzea. Hau joanen zaiote debru zahar guzien funditzerat eta egorriko ditu denak orruaz jin diren tokirat sekulan gehiago ez itzultzeko gisan.

DIHARASARRI ERRETORA

Beste gauza bat ere erran behar dut haratago joan aintzin. Ortzaizeko erretoa izan zen 1890 etik 1902rat, karrosa ixtripu baten ondorioz hil behar zuten, Diharassarry Monsignore hori. 1989an, Kanboko erretoa zela, hauteskundeak izan ziren. Apez ainitzek erran zuten ez zela Elizaren etsaien alde bozkatu behar, debruaren alde bozkatzea zela. Zenbait haratago ere joan, elizaren etsai horien izenak emanez. Dena den Etxeverry Donazaharreko jauregizain xuria, bonapartista, nagusitu zitzaion Uhartehiriko Berdoly jauregizain gorriari. Gutitarik, bainan nagusitu (6686 boz eta 5823), Frantzian gorriek hartu zutelarik gaina. Hemengo errepublikarrak haserretu eta prefetari eskatu zioten zerbait egin zezan apez horien kontra, ez baitzuten dudarik apezan falta zela Berdolyren porrota.

Apezpikua hil berria eta ordaina izendatzekoa izanez, prefetak bikario nagusiei manatu zien 42 apez tokiz alda zitzaten gatziguz. Bikario nagusietarik bat zen Intxauzpe, euskal idazle xiberotarra.

Hauek, ez zezaketela apezik tokiz alda non ez zuten akusazio konkretu bat baktokaren kontra eta elizako legeak hunkitzen zituen akusazio bat. Bestenaz Batikanora dei eginen zutela gatzigatuek eta han irabaziko. Hortan gelditu zen.

Baina Jauffret apezpiku berria Gobernuak hautatu zuelarik, (gubernu framazonek hautatzen baitzituzten apezpikuak, Napoleonen konkordatuaren ondorioz!) eskaera bera egin zioten apezpiku berriari. Honek negoziatu eta 12 izenetan mugatu ziren. Hauetan Kanbon zen Diharassarry saratarra. Baionan

sartu zelarik, apezpiku berriak egin zuen lehen lana hauxe izan zen: astelehenan igorri gutuna, eta iganderako behar zuten toki berrian sartuak. Behin ere ez zen horrelako epe laburrik eman.

Joan ziren beraz apezak, manatu toki berrietara, baina Intxauzpek erran bezala Erromara dei egin. Diharasarri joan zen harat denen izenean. Auzia irabazteko bidean ziren, biziki gaizki heldu baitzen. Lavigerie kardenal Baionesak katoliko frantsesak gomituak zituen errepublikaren onartzerat. Eliza eta errepublikaren arteko auzia konpontzeko lehen urratsak egiten ari ziren eta afera horrek gerla berriz piztuko zuen.

Diaharasarriri eskatu zioten plenta edo kerella ken zezan Elizaren onetan, eta ordainez zerbait izanen zuela. Onartu zuen.

Orduan Baionara etorri zen Mgr Puyol Getariar apeza, St Louis de Françaisko erretorea, Jauffretekin negoziatzerat. Honek ez zuen deus entzun nahi izan, bat edo beste kalonje izendatzea aipatu ziolarik.

Puyol axeri itzuli zen Erromara eta apez haietarik lau, Monsignore izenda arazi, horietan Diharasarri Ortaizekoa: sotana ubela jauntzeko ahala bazuten. Gaitzeko eskandala izan zen Frantzian eta arratsalde bat pasatu zuten deputatuen ganberan, hortaz eztabaidan. Beren sotana berria erabiltzea debekatu zioten gobernutik, delako lau monsignoreei.

Hauteskundeetan aurkeztuko ere da deputatu izateko Ortaizeko erretor berria 1893an. Morroxko gorri moderatu hazpandarra nagusituko zitzaion aise, 5.351/3779.

Beraz elgarrekin gertatuko dira Lewy errepublikarra eta Diharasarri xuria herri berean. Harremanak izan zituzten elgarrekin. Erretora gomitu zuen Abarratiagan bazkaitera. Hainbestetaradino otoiztu non, baia eman baitzion. Bai eta Mendiboure jaun bikarioak. Biharamunean jakin zuten Lewy aurkezten zela bozketan eta bazkari horretaz baliatuko zela jende zenbait sinets arazteko apezak berekin zituela edo gutienez ez zitekeela hain gaixtoa, apezak haren etxera joaten zirenaz gain bazkaiterat. Bi artikulak tratatzen dute gai hori *Euskalduna* kazetan, batek gertatu bezala, besteak erranez erretora jokoari ohartu zitzaiola, zepoan erori aintzin eta ez zirela joan. Baina ez da dudarik apezak Abarrategian izan zirela, Levik kazeta honi igorriarik, *Eskualdunak* agertu artikulua lekuko:

Nere bazkaria ez ote zen ba zure gostukoa, gisa hortan herra daukazunaz geroz, geroztik hunat, zure barnean?

Eskualdunaren arranguretarik bat: non bataiatuak ote zituen bere haurrak, batere bataiatuak baziren.

Bozketan aurkeztu zen Lewy ere. Lehenik Ortaizen berean. Gero Baigorriko kantonadan ala kontseilari nagusi, ala arrondizmenduko kontseilari izateko. Azken bozkaldi hauek deusestarazi zituen. Orotara 9 aldiz aurkeztu da.

Hona *Euskaldunaren* laburpena:

Behin nahi izan du «conseil general» deitzen den Paueko bilkuran sartu; bainan kanpo uzti zuten Baigorriarrek. Handik berehala jausten da zalditik astora, eta nahi du bederen izenda dezaten «conseil d'arrondissement» deitzen den bilkurarako. Orduan ere uzten dute kanpo.

Lerro horien artikulua berean ikusten dugu ez dela beti irringarri agertu:

Eta orai, holako gizon bati Ortzaitzarrek eman dutela zombait bozen maioritatia kasik ezin sinetsia da!

Beraz gehiengoan izan du behin bederen bere herrian, nahiz ez zen udal hauteskundeetan.

Beste herri zenbaitetan ere izan du arrakasta, beti:

Eskualdunaren arabera: Baigorri eta Bankan salbu, nihork ez du naski indarrik egin Leviren kontra; Bidarraik eta Ortzaitzek ahalgetu behar lukete.

Nahi izan zuen deputatu bozketan ere aurkeztu Berdoly senaduan sartu zelarik, baina bere aldekoek Pradet-Ballade amikuztarra nahiago izan zuten nahiz ez zen Levy bezain segurra kolore politiko aldetik. Zergatik ote?

Ez uste izan Iparraldea xuria zenik aintzek uste duten bezala. Etxeverri Berdolyri nagusitu bazitzaion 1889an, zenbeit ehun bozez, gero Berdoly izanen da deputatu eta ondotik, Pradet Ballade Baxe Nabarra-Xiberuan. Biak gorriak. Lapurdi barnealdean Morrokok garraitua zuen Diharasarri. Horiek baino lehenago deputatu izana zen Renaud Garaztarra. Bi bozkaldi izan ziren hautagai xuri bihirik gabe Iparralde osoan, 1898 eta 1902! Hiru aldiz, hiru deputatuak gorriak izan ziren. Ondoko bi aldietan bi gorri eta xuri bat. 19 urtez, gorriak nagusi. Iparralde xuriaren hori, ipuin bat da.

1944an hil zen eta deus ez dakigu 1914an kazeta gelditu zenetik eta bere heriotzara arte egin zuenaz. Dakigun gauza bakarra, gu sortu gaituen Mendi Irisarriko medikuak artatzen zuela Levy xaharra, hain segur prostatatik.

Eskual Herrian agertu artikulua andana bat sartu dugu *Xuri-gorriak* gure liburuan. Han irakurtzen ahalko dituzue:

Arrabozka Baigorri, 1899.IX.30, 79. or.

Mezu idekia Morde Legrand, Harriague, eta Pradet gure deputatuer. 1902. VI.06 *Xuri ala gorriak dira?*

Ortzaitzeko mera 1902.III.8, 121. or. *Auzpeza ez ote da jaun erretora?*

Prosesioneak 1908.XII.10 122. or. *Diharasarrik, Besta Berriko proosio-nea kendu zuen Ortzaitzen.*

Eginbidea, 1899.VII.08, 132. or. *Dreyfusen alde.*

Politika 1899.VII.29, 134. or. *Dreyfusen alde.*

Apez bat ikaragarria 1899.VII.29, 161. or. *Ainhoakoa*.

Komentuen legea, 1901.X.26, 165. or. *Frantziako apezpikuek onartzen ez duten lege bertsua bada bestetan*.

Beneditanuak 1902.I.25, 168. or. *Belokekoak ez dira batere Betelemeko Jesus iduriak*.

Legearen kontra, 1902.VIII.02, 170. or. *Lege bati orok behar dute sumetitu*.

Eskola girixtinoak eta eskola Jainkorik gabekoak, 1905.IV.02, 193. or. *Eskola girixtinoetan katixima ikasten da bainan ez matematikak*.

Burrasoen eginbidea, 1899.IX.23, 195. or. *Aldudeko predikua*.

Zer giren, 1899.IX.30, 198. or. *Aurrekoaren segida*.

Eskual Herriko eskolak, 1899.VIII.30, 201. or. *Haurren erdiak ez dira joaten eskolara*.

Frantsesa eta Heskual Herriko apezak, 1902.VI.22, 227. or. *Katixima frantsesez egitearen alde*.

Katixima frantsesez, 1903.II.14, 231. or. *Gai bera*.

Katexima frantsesez, 1903.IV.4, 237. or. *Jende xehearentzat dute katixima euskaraz egiten apezek*.

Separazioneaz, 25.XI.05, 243. or. *Elizak eta estadoa berextearen alde*.

Berextea, 1905.XII.16, 246. or. *Kontzientziaren libertatea segurtatua da*.

Apezpikuak eta berextea, 1903.XII.05, 247. or. *Apezpikuek ez dute onartzen*.

Apezpikuak, 1906.VI.06, 248. or. *Apezek beren paga galduko ote dute apezpikuen faltaz?*

Separazioneko legea, 1906.XII.21 248. or. *Separazionea egin da eta igandetan mezak badira*.

Apezak libro kasik berek nahigabetarik 1906.XII.21, 249. or.

Imitorioan apezek nola egin duten, 1906.III.17, 254. or. *Ez da deus ebatsia izan*.

Kanbon: salba ditzagun kaderak, 1906.II.12, 268. or. *Haltsuko emazteen arrangura: kaderak!*

Inventaira herri batean, 1906.III.24, 273. or. *50 soldado imitorioan*.

Bururatzeko hona Euskal Erakustokiko manuskriptoan diren kantuetan, Bordenave batena izan litekeena, Jean-Baptiste Orpustanen ustez:

1

Haran eder Hortçaize, narric ez duçuna
 Naïcelarican atce ezin dut egona,
 Ez çu laudatu gabe ecin naïteke gueldi,
 beldurrez naiz herabe ez naïcen gaï handi.

2

Nongo othe mintçaiac ontsa liro conda
 gutiac dire gaiac ezin daïzte heda;
 urrezco choïl mihiac abantaïlla duque,
 Hortçaitzeren graciac baïtetçaque.

3

Mendian inguruan abren alhatceco;
 nola içarrac ceruan ditezque udaco;
 Belhar punta beçambat antcho eta ardi,
 non da icucari bat, hau den beçala handi?

4

Jausten baniz menditik celhaidietara
 ura darraït ondotic errepiretara:
 ibaïa batec ditu ederqui frascacen,
 halaber dute früitu naharo ekhartcen

5

Lur oinari darraïo jende bat arraïa,
 arrotza oro çaiïo duela anaia:
 Ezti eta esneric baïcen ez den lurrac,
 cer dakharke gaixtorik, cer baïcen thresorac!

6

Bertcen artean, o çu guiçonon lorea!
 fagorez har ezazu gaur floca nerea:
 Bertecla eçagutça ecin dirot marca,
 ordainez dut bihotza çuretçat, doblezca.

* * *

BESTE ITURRIAK

- *Eskualduna* astekaria (passim).
- Paris eta Ortzaizeko sortze eta heriotza ageriak.
- Dokumentu pribatuak Mendibil anderearen etxean, Heletan.
- J.-B. Orpustan, *Urzaiz, la vallée d'Ossès*, Izpegi, Baigori, 2002.
- J.-B. Orpustan, «Trois poèmes basques du 18. Siècle», *Bulletin du Musée Basque* 1989, 531-572. orr.

NOTARIOAK*Parisen*

Berceon ET II/1149

Me Delapalme : F¹⁷ C XLV 1082, 1084, 1087, 1480, 1481, 1500, 1501, 1502, 1508, 1522.

C XVIII/1203

Me Martin Deslandes : ET LIII/1203.

Me Fleury : ET C XLV 1984

Paben

Diriart Gustave : 3 E 18069, 18072

Rigoulet : 3 E 12133